

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANGRAIZ OKAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Langraiz Okako zenbait makaldiren baso aprobetxamendua

Langraiz Okako Administrazio Batzarrak 2019ko abenduaren 27ko ohiko bileran hartutako erabakiaren bidez, baso aprobetxamendu honen enkante publikoa iragartzen da:

ESPEZIEA	ZUHAITZ KOPURUA			KUBIKAZIOA		TASAZIOA (BEZA APARTE)		
	ZURGAIAK (DIAM. > 25 CM)	EGURRETARAKO (DIAM. < 25 CM)	GUZTIRA	M ³ CC OIN MATERIAL	M ³ CC EGURRETARAKO OIN	€/M ³ MATERIALETARAKO	€/M ³ EGURRETARAKO	GUZTIRA (€)
Populus x euroamericana, I-214 kлона	1190	54	1244	1625,053	22	45	16	73.479,39

1. Erakunde esleitzailera, kontratuaren xedea eta lizitazio oinarria.
 - a. Langraiz Okako Administrazio Batzarra.
 - b. Lote bakarra; dermioak: Sorrivas eta La Dehesa (Sauto bidea); 697, 698, 766, 767, 768 eta 1105 lurzatiak, Iruña Okako 1 poligonoa.
2. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era.
 - a. Izapidetzea: arrunta.
 - b. Prozedura: irekia.
 - c. Esleitzeko era: enkante publikoa.
3. Lizitazio oinarria. Lote bakarra: 73.479,39 euro.
4. Behin-behineko eta behin betiko bermeak.
 - a. Behin-behinekoa: ez da eskatzen.
 - b. Behin betikoa: esleipenaren ehuneko 30 (BEZa aparte).
5. Ordaintzeko baldintzak: administrazio klausula berezien agirian adierazitakoak.
6. Aprobetxamendurako epea:
 - a. 8 hilabete emate akta izenpetzen denetik, martxoaren 15etik uztailaren 31ra arteko aldia kontuan hartu gabe.
7. Iragarki gastuak.
 - a. Esleipendunak ordainduko ditu.
8. Agiriak eta lizitazio baldintzen informazioa eskuratzea.
 - a. Hemen daude ikusgai administrazio klausulen agiriak eta aprobetxamendua arautzen duten baldintza agiriak:
 - i. Administrazio batzar honen kontratatzailearen profila.
 - ii. Langraiz Okako Administrazio Batzarraren egoitza: J. A. Agirre Lehendakariaren parkea, 3, 01230, Langraiz Oka. Telefonoa: 945361457, posta elektronikoa: janoca1@telefonica.net. Ordutegia: astelehenetik ostiralera 9:30etik 14:00etara, iragarkia BOTHAn argitaratu eta biharamunetik hasita eta eskaintzak aurkezteko epea ireki arte.

9. Eskaintzak aurkeztea.

a. Eskaintzak aurkezteko lekua eta eguna. Eskaintzak batera aurkeztuko diren bi gutun azal itxitan aurkeztuko dira, Langraiz Okako Administrazio Batzarraren erregistro orokorrean (helbidea: J. A. Agirre Lehendakariaren parkea, 3, 01230, Langraiz Oka), edo postaz bidaliko dira, iragarria BOTHAn argitaratu eta biharamunetik hasiko den 15 eguneko epearen azken eguneko 13:30ak arte. Azken eguna baliogabea bada, epealdia hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

b. Aurkeztu beharreko eskaintza eredia eta dokumentazioa. Lizitatzailerek administrazio klausula berezien agirian jasotzen den eskaintza ereduaren arabera aurkeztuko dituzte eskaintzak.

10. Gutun azalak irekitzea.

a. Gutun azalak ekitaldi publikoan irekiko dira, eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondorengo seigarren egun baliodunean, goizeko hamar eta erdietan, Langraiz Okako Administrazio Batzarraren bulegoetan (J. A. Agirre Lehendakariaren parkea, 3, 01230 - Langraiz Oka).

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Langraiz Oka, 2019ko abenduaren 30a

Errejidore-lehendakaria
BENEMÉRITO PICÓN FRAILE